



Pil-pilean

Soraluzeko hilabetekaria
2019ko iraila · 356. alea

TOKIKOM



AITOR AMOR
AGURRA 35 URTEKO IBILBIDEARI



PIL-PILEAN 356

2019ko iraila

Azaleko argazkiaren egilea:
Fernan Oregi.

Aurkibidea

- 4 **Bote prontuan**
Cristina Jacas Mateu
 - 6 **Begira** Soraluzeko txoria
 - 8 **Zer berri** Aktualitateko albisteak
 - 14 **Argazki bidez** Kariñoa osagai
 - 18 **Erreportajea** 35 urteko ibilbideari amaiera
 - 22 **Kirola** Sora eta errugbia
 - 24 **Berezia** Kike Amonarriz eta Elena Laka
 - 26 **Kultura** Irakurketa feminista ikastaroa eta urriko antzezlanak
 - 28 **Sakonean** Euskaldunak eta senegaldarrak eskutik
 - 30 **Zerbitzuak** Zorion-agurrak, oroitzak, iragarki laburrak...
- IRITZIA
 - 3 **Neuretik** Arantza Mata
Aniztasuna ikastetxeetan
 - 16 **Gutunak** Oier Zubizarreta 'Txanbua'
Berrasmatu deigun Gaztañerre
 - 16 **Hausnarketa** Gaikako bilketa
 - 17 **Zir(r)ika** P.G. *Basurde maltzurak*
 - 17 **Puntua** Egoitz Unamuno *Normala*



Pil-pilean herri komunikabidea

TOKIKOM

Argitaratzailea
Pil-pilean Euskaltzaleen Topagunea
Errabal kalea 15-1, PK 27
20590 Soraluze

Erredakzioa
Ubane Madera
ubane@pilpilean.eus
Egoitz Unamuno
egoitz@pilpilean.eus
605 706 086

Publizitatea
publizitatea@pilpilean.eus

Zuzentzailea
Leire Ginea

Diseinua
Goiena
Oier Larreategi (moldaketak)

Maketazioa
Oier Larreategi

Inprimategia:
Gertu Koop.

Banaketa:
Pil-pilean Ekoizpena

Lege Gordailua:
SS-537-2000

Tirada: 2.100 ale

Babesleak

GOKI
erreformak

 **SORALUCE**



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

**KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA**

Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua



Gipuzkoako Foru Aldundia



**SORALUZeko
UDALA**

Aniztasuna ikastetxeetan



ARANTZA MATA

XX. mende bukaeran genuen gizartearekin alderatuta, XXI. mendeko gizarteak beste une sozial eta historiko batean kokatu gaitu. Ezaugarri gisa, aipatuko dugu mende hasieran inmigrazioak gora egin zuela, eta horrek gizarte-integrazioa lortzeko eragin ditzakeen zailtasunak ekarri ditu. Beraz, aniztasuna eguneroko bizitzaren parte den neurrian, ikastetxeetan islatzen da eta ikastetxeko errealitate bihurtu.

Begi bistan dago gizartea aldatu egin dela eta horrek aldaketak ekarri ditu eskolako xede eta helburuetara; are gehiago, herriak eta horien islada diren hainbat ikastetxek azken urteotan izan duten etorkin etorrera nabaria kontuan izaten badugu. Gaur egun, ikasgela batean hainbat herrialdeetako ikasleak aurki ditzakegu, horrek dakarren konplexutasun guztiarekin.

Beraz, ikastetxeek bizi ohi duten errealitate berri horretara egokitzeko ezinbestekoa da elkarrekin bizitzen ikastea eta aniztasuna taxuz kudeatzea. Esan dezakegu gaur egungo gizarteak duen ikasketarik garrantzitsuenetariko bat dela.

Halaber, aniztasunari egoki erantzuteak ahalegin handia eskatzen du; hots, ikasleen aniztasuna erronka berria bihurtu da gaur egun hainbat ikastetxetan. Eta, aniztasunaz hitz egiten dudanean, ez da bakarrik kultur aniztasunari dagokiona: hor daude ere hizkuntzena, erlijioarena, sexu aukerarena, sinismenena, gaitasunena...

Ondorioz, irakasleek aniztasuna bere osotasunean kudeatzeko, baliabideak eta prestakuntza ezinbestekoa dutela argi dago, baina ikastetxeek begirada inklusiboa izan behar dute eta ikasle bakoitzaren gaitasunak ahalik eta gehien garatzen ahalegindu behar dira. Horretarako, hezkuntza komunitateek hausnarketa sakona egin behar dute, planteamendu orokor bat antolatzea komeni da eta guztiok partaide izatea: irakasleak, ikasleak, familiak... Eta gaur arte balio izan digun metodologia irauli egin behar dela zalantzarik ez dago, ikasleak kompetentzietan hezi behar ditugu eta, nola ez, motibatur jarraitu dezatela, metodologia anitzekin bide anitzak bilatuz, alegia, gaur egungo ikasleriaren ezaugarri eta beharrei erantzuteko.

Iritzi artikulua ...eta kितto! astekarian argitaratutakoa da.

ANIZTASUNA KUDEATZEKO BALIABIDEAK ETA PRESTAKUNTZA EZINBESTEKOA DA

Cristina Jacas Mateu

SUHILTZAILEA

TESTUA: UBANE MADERA

ARGAZKIA: IURRETAKO SUHILTZAILE PARKEA

Cris Jacasek (Bartzelona, 1989) suhiltzaile dihardu Iurretako suhiltzaile parkean iazko ekainetik. 48 langilek eta hiru sarjentok osatzen dute haren lan-taldea. Sei txandatan egiten dute lan, Ermutik Zornotzarainoko udalerrri guztien zerbitzura.

Zer dela-eta Bizkaian? Euskal Herrian suhiltzaile-parkeak lurralde historikoen arabera banatzen dira, eta hiriburuak aparte. Sei daude. Bakoitzak bere oposizioak egiten ditu. Niri Bizkaikoak tokatu zitzaizkidan parean. Baina ez daukat plazarik, ordezkapenak egiten dihardut. Gainera, Bilborako oposizioak prestatzen nabil.

Zer moduz orain arteko esperientzia? Oso ondo. Zortea izan dut, jende ona dut inguruan, lanarekin konprometituta, eta horrek gauzak errazten ditu.

Twitterren arabera, denetik egiten duzue: suak emendatu, istripuetara joan, erlauntzak erretiratu... Lanbidea suteekin jaio zen, baina gaur egun suteak dira interbentzioen %30a. Beste guztiak dira asistentzia teknikoak: errepidea garbitzea istripuen ondoren, gas ihesak, haizeteek eragindako apurketak... Eta erdia baino gehiago salbamenduak: lan istripuak, kotxeetakoak, mendiko erreskateak...

Zenbat irteera egiten dituzue egun baten? Iaz, Iurretan bakarrik, 600 irteera. Baina ez gara egunero irtetzen. Atzo ez ginen irten, eta herenegun bost bider. Hori da politena: lanera zoaz, baina ez dakizu zer egingo duzun... Eta uste duzunean, ya 22:00ak dira, ohera noa, gutxien espero duzunean, alarmak jotzen du. Zerotik ehunera pasatu behar duzu. Oso intentsua da, batzuetan gogorra, batez ere gauean.

Aurre egin behar izan diozun gertakaririk arriskutsuena zein izan da? Guk beti adi joan behar dugu. Behin erle batzuk kentzera joan ginen. Horrenbestetan egiten dugu hori ezen lankideak zaintza malgutu zuela, eta sartu zitzaizkion erleak jantzi barrura; oso arriskutsua izan daiteke hori. Ostera, Mañarian sutea izan genuen behin, eta ke eta su handia zeuden, eta horrek berak ya arreata izatea eragiten dizu.

Eta desatseginena? Auto istripuak oso desatseginak dira. Bestalde, askotan nahiz eta azkar ibili eta lana ondo egin ez gara garaiz iristen. Halakoetan... Bakarrik bizi diren pertsonen kasuak ere gero eta gehiago dira. Eta, oro har, etxe askotara sartzen gara eta ikusitakoarengatik konturatzen zara estuasun handiak daudela nonahi.

Zer behar da suhiltzaile izateko? Gogo handia; ze eskatzen dira funtzionario izateko baldintza berak: Konstituzioa, Estatutua... kamioi eta trailer artikulatu gidabaimenak ere bai eta ez izatea gaixotasun larriarik. Eta gainera, azterketa teorikoa, proba fisikoak, proba psikoteknikoa, eta batzuetan kamioiaren azterketa izaten dira. Hori bai, bada eguneratu beharreko datu bat: eskatu izan dira proba fisiko desproporzionatuak baina dagoeneko ez da horrelakorik egiten. Orain, gehiago eskatzen da oreka fisiko-mentala, fisikoki oso-oso ondo egotea baino. Egia da nik gogor entrenatu nuela lortu arte, baina lortu nuen eta nik lortu badut... Inportanteena da denbora asko eskaintzea: ikasi, ikasi, ikasi, entrenatu, entrenatu, ikasi...Aurreko frogak prestatzeko akademiara joan nintzen, egunero 6-8 ordu urtebetez, baina orain Bilbokoa prestatzen dihardut neure kasa.

Emakume izateak ekarri dizu zailtasun

berezirik? Suhiltzaile izatea zaila da. Konpetentzia handia da. Batzuetan sor daiteke pikea gizonekin, ze proba fisikoen baremoak, nahiz eta gutxi izan, desberdinak dira. Hala ere, oposizioak gaintzen dituenak kapaz da lan hori egiteko. Berdin da korrika apur bat polikiago egitea, horrek ez du markatzen gaitasuna. Taldean neska bakarra naiz baina ohitu dira eta gero eta gehiago gara. Hala ere, gustatuko litzaidake gizartearen erritmo berean joatea, alegia, taldean emakume gehiago izatea; ailegatzea eguna non emakume suhiltzaile izatea ez den albiste izango.

Besterik esan nahi duzu? Lanera super pozik noala. Piloa gustatzen zait, maiteminduta nago lanarekin. Berdin da asteburua izan, Gabonak izan... pozik noa.



Soraluzeko txoria

ARGAZKIA: RAKEL ALBENIZ

TESTUA: UBANE MADERA

Uztailaren 6tik Gorka Tornos (Soraluze, 1985) da Euskadiko Parapente Txapelduna, Liga Norten 5. postuan sailkatu da eta uztail amaieran 4. egin zuen Espainiako Liga Nazionalean. "Probatzera joanda" irabazi zuen Euskadikoa. Eta Espainiakora joan zen "esperientzia hartzearen". Gorkak pozik jaso ditu garaipenak, baina nahiago ditu parapenteak ematen dizkion bizipenak. 2013-2014an zaletu zen parapentera, Xabi Arribillagarekin batera ikasi ondoren. Harrezkero, paraje ugarian egin du hegana: "hegaldirik altuena 5.000 metrora egin dut, Aneton". Gustuko ditu Piriniotako zeruak, Udaltxekoak eta Aizkorrikoak, eta baita Madrilgo lautadakoak ere, bakoitzak ei dauka bere xarma, eta haizea lagun, zeruak ez du mugarik.







Sarri erakusten dute itxura narrasa edukiontzi inguruek; Erregetxekoa asteon.

Hondakinekin narras eta nekez

Europako legea indarrean sartzeko apenas hilabete gutxi batzuk geratzen direnean, Soraluze gehien batzen den hondakin mota errefusa da; hau da, sailkatu barikoa.

Hilabetea joan eta hilabetea etorri, hondakinen bilketak gaintitu bariko irakasgaia izaten segitzen du Soraluze. Europaren dioenaren arabera, 2020rako hondakinen %50a gaika batu behar da.

Ostera, azken datuen arabera, Soraluze errefusa da gehien batzen dena eta horrela segitzen duen inguruko udalerrri bakarrenetarikoa da.

Horrez gain, Soraluzeko edukiontzi inguruek itxura negargarria dute. Eta oraindik badago zabor poltsak ibaira botatzen dituenik ere.

Askok bilketa zerbitzuari eta sistemari egozten diote horren guztiaren errua; beste askok, berriz, erabiltzaileen

jokabideari, kontzientziario falta dutela esanez. Erruak erru, etorkizunean Udalak neurriak gogortuko ditu.

Datu kezagarriak

Udalak urte hasieratik dihardu edukiontzi kanpoetan lagatako poltsak ikuskatu eta haien jabeak identifikatzen.

Irailaren 23ra arte, 156 poltsa identifikatzea lortu du (zeuden guztiak ez). Identifikatutakoen artean, 139 bizilagun behin harrapatu dituzte, eta 17 lagun, berriz, bizpahiru bider. Horrez gain, identifikatutakoen artean, 17 ez dira Soraluzeakoak: "Identifikatutakoak dira norbanakoak, enpresak, tabernak eta saltokiak. 100

abisu gutun bidali ditugu. Eta bi bider baino gehiago identifikatu ditugun horiek, berriz, ultimatuma jaso dute. Hirugarrenean, isuna jasoko dute", esplikatu du Ingurumen teknikariak.

300 euro arteko isunak

Isunaren zenbatekoari dagokionez, abisu gutunean jartzen duena baino dezente gogorragoa izango da; izan ere, Mankomunitateko ordenantzan oinarritutakoa ezarriko dute.

Haren arabera, isun arinagatik 600 euro arteko zigorra ere ezar daiteke. Iker Aldazabal alkateak dioenez, Soraluze txakur kakekin erabiltzen den irizpidea aplikatuta, 300 euro bueltako isunak ipiniko dituzte, eta kaleko zakarrontzi txikitian lagatzen diren zabor poltsen jabeei, zein ibaira jaurtitzen dituztenei ere, zigorra ezarriko diete.

Edukiontzi berriak

Sistemari dagokionez, berriz, alkateak jakinarazi du zerbitzua hobetzeko pausoak ematen segituko dutela, erabiltzaileen eskaeraz kontuan hartuta.

Hori horrela, uda aurretik egindako bidetik segitzeko eskatu diote Mankomunitateko presidenteari. Soraluze bertaratu zen Iosu Arraiz eta udal ordezkariak honako eskaerak helarazi dizkiote: segitzeko errefusaren edukiontziei pedalak ipintzen,

TXAKUR KAKAK EZ BATZEARREN IPINTZEN DITUEN ISUN BERAK IPINIKO DITU UDALAK: 300 EURORAINOKOAK

eta edukiontzi marroiei ere ipintzeko. Isleten garbiketa berezia egitea ere eskatu dute. Eta, besteak beste, bilketaren maiztasuna aztertzea, ea nahikoa den dagoenarekin.

Oraingoaz, edukiontzi hori berriak ekartzen dihardute, aho handiagoarekin. Erregetxean edukiontzi hori eta urdin bana gehitu zituzten eta baita mini-garbigunea ere.

Laster plastikokoak ere bai

Bestalde, Udalak laster kanpaina abiaraziko du plastikoen kontsumoa gutxitzeko, tabernetan, jatetxeetan eta saltokietan. Izan ere, plastikozko poltsen erabilera arautzen duen Europako legedia indarrean sartuko da 2021ean eta horri begira Udalak neurriak hartzen hasi nahi du.

Plastikozko poltsak, edateko lastotxoak, plastikozko ur botilak eta udal erakundeetako poltsak nahi ditu murriztu. Datu bat: Soraluzean urtean 394.392 plastikozko poltsa kontsumitzen dira.

394.392

Poltsa arruntak eta frutetarako-eta erabiltzen diren poltsa txikiak (granel poltsak) batuta, ia 400.000 halako kontsumitzen dira urtean herrian.

156


Edukiontzietatik kanpo lagata zeuden poltsen artean 156ren jabeak identifikatu ditu Udalak, eta 100 abisu gutun bidali ditu.

Harakinarekin Whatsappez

Marimar harategia enkarguak Whatsapp bidez eskatzeko zerbitzua eskaintzen hasi da. Helburua da bezeroei ahalik eta erraztasunik handienak eskaintzea erosketak egin ahal izateko, norberak ahal duenean. "Gaur egun jendea oso lanpetuta bizi da; askok lan ordutegiarengatik zailtasunak dituzte erosketak egiteko. Eta asmoa da hori guztia erraztea. Whatsappa ia mundu guztiak erabiltzen du. Beraz, aurrerantzean hemen ere bai. eta . 608 59 48 00 zenbakira idatzita bidal dezakete enkargua, adierazita ze egunetan eta ze ordutan pasatuko den norbait hura jasotzera", esplikatu du Mari Mar Deza harakinak.

Gaikakoa eta errefuxa

ITURRIA: SORALUZeko UDALA



Gaikako bilketa eta errefusaren arteko aldea erakusten du grafikoak, iazko uztailetik aurtengo ekainera bitartean. Adibidez, 2019ko urtarrilean %20 inguru gehiago bildu da gaika Debararrenan (%60 gaika, %40 errefusa). Aldiz, Soraluzean, iazko uztailean eta urtarrilean bakarrik batu da hondakin gehiago saikatu (eta hor ere Europak ezarritakotik behera), osterantzean, errefusa batu da gehiago.

Laguntza bonoak abian dira

Azken urteetan egin duen moduan, Soraluzean Udalak laguntza-bonoak banatuko ditu egoera ekonomiko zaila bizi duten herritarren artean, Soraluzean erroldatutakoaren artean, alegia. Eskatzaileen diru-sarreraren arabera, laguntza sozialak jasotzen dituztenek 50 euroko bonuak jasotzeko aukera izango dute; eta langileek, langabetuek, pentsiodunek eta laguntza ekonomiko gabeek, berriz, 100 eurokoak. Laguntzak eskatzeko epea aste honetan zabaldu dute urriaren 25era arte, Udaletxeko Gizarte Zerbitzu Sailean (09:00-14:00). Bonuak herriko dendetan erabili behar dira.

Solairu berriaren obrak hasi dira

Igerilekuko lanak bukatu berritan, datorren astean zabalduko dute berau; bestalde, egunotan hasi dituzte solairu berria gehitzeko obrak

Hasi dira kiroldegiari solairu berria gehitzeko obrak, aste honetako martitzenean hasi ere. Gutxienez, datozen sei hilabeteotan, bada, mugimendu handia sumatuko dugu Gaztelupe pare hartan.

Besteak beste, errepidean zirkulazioa eten egin beharko dute noizbehinka, materiala eraman beharko dutelako, garabia ipini obretarako... Gauza bera gertatuko da kiroldegiko beste aldearekin ere, ibaira begira dagoen pasealekuarekin. Hura ere itxi egingo dute tarteka.

Halakoen berri Plaentxia.eus atariaren bitartez helaraziko da.

Obrarik handiena

Gaur egungo espazio gabezia konpontzeko helburuarekin eraikiko dute solairu berria



Langileak obretan, eguaztenean.

kiroldegian, 450 metro karratu dituen terrazaren gainean, kiroltarako eta kulturarako azpiegiturak sortze aldera. 918 bazkide ditu kiroldegiak eta txiki geratu da.

Solairu berrian egokituko dituzte honako instalazioak:

gimnasioa, spinning gela, erabilera anitzeko gela, komunak eta takillak.

Udalerrian azken urteotan egingo den obrarik handiena izango da berau, tamainarengatik eta aurrekontuarengatik. Bitxikeria bat: lanen arduraduna soraluzetarrak izango da: Iñigo Gabilondo.

Lanak Construcciones Artzamendi enpresak egingo ditu, 568.000 euroko aurrekontuarekin. Eta hortik 250.000 euro Gipuzkoako Foru Aldundiak ordainduko ditu.

Igerilekua bukatuta

Bestalde, igerilekuko tetxoa konpontzeko lanak amaitu dituzte eta ipinita eta probatzen dihardute hezetasun-kengailu berria. Gauzak horrela, datorren astearen hasieran zabalduko dute atzera ere azpiegitura. Lanak esandakoa baino hiru aste gehiago luzatu dira, aurreikusitakoa baino lan handiagoa egin behar izan duelako enpresak, esplikatuta dutenez. Hori bai "luze" iraungo duen konponketa egin izana azpimarratu dute.

Udaletxean ere egin daiteke hautets propaganda ez jasotzeko eskaera

Horrenbeste hauteskunde hitzordurekin gogaituta, gero eta herritar gehiago dabilta hautets propaganda ez jasotzeko eskaerak bideratzen Espainiako Estatistika Institutura (EEI-INE).

Bada, Soraluzetik bertatik ere egin daiteke hori. Horretarako inprimakiak udaletxean eska daitezke, beheko zein goiko

solairuan. Hura bete eta entregatu egin behar da.

Urriaren 7a aurretik

Hori bai, urriaren 7a baino lehen entregatu behar dira orriok.

Azken finean, prozedura horren bitartez Espainiako Estatistika Institutuari eskatzen zaio ken dezatela eskatzailearen

izena hautagai-zerrendetako ordezkariari ematen zaizkien hautesle-errolatik; horrela, haiek propagandarik ez bidaltzeko. Gero, norebak nahi duenean gauza bera egin daiteke atzera ere alta emateko zerrenda horretan.

Inprimakiok udaletxean izateaz aparte, INEren atarian ere bada eskaera bera egiteko inprimakiak betetzeko aukera. Baina hori egiteko Nortasun Agiri Elektronikoa eduki beharra dago.

Berbalagun eta Auzoko martxan

Euskara praktikatu edo euskarara hurreratu nahi duten herritarrentzako egitasmoetan izena emateko epea zabalik dago.

Udazkenarekin batera, Pil-pilean euskaltzaleen elkarteak Berbalagun eta Auzoko egitasmoak berrabiaraziko ditu. Bi egitasmo hauek, bakoitzak bere modura, euskarara eta euskal komunitatera hurreratzeko aukera ematen dute. Berbalagunak astean behin batzen dira, ordubetez, euskara praktikatzeko eta beharrezkoa da euskaraz egiteko gutxieneko gaitasuna. Auzokoko kideak ere astean behin batzen dira, baina kasu



Berbalagun kanpainaren irudia.

honetan nahikoa da euskara hurreratzeko eta jendea ezagutzeko gogoia izatea, izan ere, dantza, sukaldaritza, musika edo bestelako ekimenen bitartez, euskal hiztunak eta euskaraz ez dakiten pertsonak jartzen baitira harremanetan.

Berbalagunean izena emateko epea urriaren 1ean zabalduko da eta zabalik izango da 31ra bitartean. Auzoko egitasmoak berriz, irailaren 30ean egingo ditu "ongi etorri batzarrak", goizekoak 11:00etan eta arratsaldekoak 19:00etan, Etxaburuuetako Elkartegian. Baterako zein besterako izena Pil-pilean eman daiteke, sara@pilpilean.eus helbidera idatzita edo 943751304 telefonora deituta. Aurten, Sara Carrasco Pil-pileaneko lankidea izango da bi egitasmoen dinamizatzailea.

OSTEGUNETAKO PELIKULAK

GAUEKO 9:00ETAN ANTZOKIAN

MULA URRIAK 10




Zuzendaria:
Clint Eastwood
Herrialdea:
EEUU
Urtea: 2018
Iraupena:
116 min
Hizkuntza:
Gaztelera

VITORIA 3 DE MARZO URRIAK 24



Zuzendaria:
Victor Cabaco
Herrialdea:
Euskal Herria
Urtea: 2018
Iraupena:
90 min
Hizkuntza:
Gaztelera



Iaz Euskaraldiaren kanpaina kalean.

Euskaraldiak aldaketa eragin du

Ariketan abian zela, euskararen erabilerak 20 puntu egin zuen gora parte hartzaileen artean.

Irailean ezagutarazi dituzte Euskaraldiaren gaineko ikerketaren emaitzak eta horien arabera, ariketa kolektiboan parte hartu dutenen artean, euskararen erabilerak nabarmen egin du gora: 20 puntu ariketak iraun zuen bitartean, eta 5 puntu, hiru hilabete beranduago egin duten neurketan.

Datuen argitan, Euskaraldiak aldaketa esanguratsua eragin du parte hartzaileen hizkuntza ohituretan (+20), nahiz eta denborarekin aldaketak intentsitatea galdu duen (+5).

Ikerketak erakutsi duenez, aldaketa handiagoa egin dute partaide talde batzuetan: euskaldun hartzaileen artean —ulertu bai, baina hitz egiteko zailtasunak dituztenak— eta inguru erdaldunenetako hiztunen artean. Maila

mugatuia izan arren ahobizi rola hartu dutenek hamalau puntuko irabazia dute erabileran hiru hilabete igarota; belarriprest rola hartu dutenek, zortzi puntukoa. Aldiz, euskaraz egoki hitz egiteko gai direnen artean, txikiagoa da irabazia: ahobiziek, bost puntu; belarriprestek, zortzi. Kontuan izatekoa da euskaraz egiteko gai direnen erabilera nabarmen handiagoa dela, hobetzeko tarte txikiagoa dela hiztun horien artean.

2020an egingo da II. edizioa

Joan den udazkenean egin zuten lehen Euskaraldia. 225.000 lagunek parte hartu zuten (500 lagunek Soraluzen). Bigarren edizioa datorren urtean egingo dute: 15 egun iraungo du eta entitateetan ere eragitea izango da ariketaren helburua.

Berrikuntzak Gaztañerren

Azaroaren 9an egingo da aurtengo Gaztañerre azoka, 24.a, hainbat berritasunekin: azoka 10:00etan zabalduko da (orain arte 09:00etan zabaltzen zen); bi-hiru baserritar gehiagok jarriko dute postua eta Udalak debekatu egingo die kanpoko saltzaileei herrian postua ipintzea. Gainerakoan, egitaraua antzekoa izango da eta iaz bezala, sagardo lehiaketa antolatuko dute sanandrestarrek.



lazko azoka.

Patria 2020an emitituko dute

Irailaren 21ean, Donostiako Zinemaldian aurkeztu zuten Patria eta bertan izan ziren telesailean parte hartu duten aktore nagusiak. Telesailaren lehen irudi batzuk erakutsi zituzten, ez besterik. Izan ere, telesaila 2020an estreinatuko dute pantaila txikian ordubeteko zortzi kapitulutan.

Sabin Mendizabal atera da espetxetik

Irailaren 3an atera zen Sabin Mendizabal kalera, gartzelan lau urte t'erdia egin eta gero.

Sabin Mendizabalek guztira hamar urte egin ditu herritik kanpora -sei ihes eginda eta beste lau t'erdia espetxean- eta bere etorrerak ikusmin handia sortu zuen herrian. Herrira heldu zenean, senide eta ezagun asko hurreratu zen bera ikusi eta agurtzera, herrikoak zenbait eta herritik kanpokoak beste asko. Lagunek Plaza Berrian egin zioten harrera auresku, poesia eta bertso musikatuak interpretatuz eta, ondoren, trikilariek lagunduta



Sabin Mendizabal espetxetik atera berri.

Sabinek bere argazkiak erretiratu zituen Arranotik eta Gaztetxetik.

PSE-EE-k eta Covitek gaitzetsi Euskadiko Alderdi Sozialistak eta Covitek gaitzetsi egin zuten Sabin Mendizabali egindako ongietorria. PSE-EEK kaleratu zuen oharrean indar politiko guztiei konpromisoa eskatu zien “gizalegearen kontrako jarrera antidemokratikoen erakusle diren harrera horiek” ebitatzeko. Covitek, berriz, salatu du “heroia balitz bezala omendu izana”.

2009an Auzitegi Nazionalak lau urte t'erdiko espetxealdia ezarri zion Sabin Mendizabali 2003an Ermuko Alderdi Popularraren egoitzaren atarian etxean egindako lehergailu bat ipintzeagatik (lehergailua ez zen leherdu).

Javier Mestre antenista: “Ekainaren 30era arteko epea dago antenak egokitzeko”

Piztu dituzte telebista frekuentzia berriak eta hurrengo hilabeteetan trantsizio epe bat egongo da komunitateetako antenak egokitzeko.

BABESTUTAKO EDUKIA

Abian da lurreko telebista digitaleko frekuentziak aldatzeko prozesua: “bigarren dibidendu digitala”. Prozesu horren helburua da frekuentzientzietan tokia egitea mugikorretako 5G teknologiarri. Urtebete baino lehen, antenak egokitu beharko dira eta horretarako trantsizio epe bat izango da, 2020ko ekainaren 30era arteko.

Prozesu horrek ez du telebista katerik desagerrarazi edo



Javier Mestre, antenista.

berririk sortuko. Soilik, frekuentziak aldatuko dira tokiz. Antena indibiduala duten etxeetan nahikoa izango da kanalak berriz sintonizatzea. Ostera, komunitateetako antena kolektibo gehien gehienak egokitu egin beharko dira (banda zabalekoak ezik).

Javier Mestrek antena horiek egokitzeko zerbitzu osoa eskaintzen du eta dagoeneko hasita dago komunitateen eskaerak bideratzen, dirulaguntzak tramitatzea barne. Soraluzen laguntza horiek 104,3 euro eta 250 euro bitartekoak izango dira eta eskatu ahal izateko ezinbesteko baldintza da lan horiek baimendutako antenista batek egitea.

Javier Mestreren antenista zerbitzua: 665 72 46 32, antenasjaviermestre.com.

Kariñoa osagai

TESTUA UBANE MADERA

ARGAZKIAK: FERNAN OREGI

Pasa berri diren San Martzialgo eta Txurruneko jaiek erakutsi dute herriko jaiez gain, auzoetako jaiek ere erakartzen ditzutela herritarrak. Ikusi besterik ez dago irailean zenbat herritar hurreratu den San Martzialera eta Errekaldera. Auzoetan lagunarteko giro handiagoa izaten da eta bestelako ekimenak antolatzen dira, esaterako, jolas tradizional ugari: sokatira, txapel jaurtiketa, zapitxo jokoa, toka, aulkien jokoa... Horiez gain, nortasun propioa duten ekitaldi bereziak ere bai: Txurrukenekoetan, adibidez, su artifizialek dute arrakastarik handiena, seguraski, herrian aspaldi ez direlako egiten. San Martzialgo jaietan, berriz, oso estimatua da Karidadeko salda eta sukaldariak berau prestatzeko erabiltzen duten osagai nagusia: kariñoa.





GUTUNAK

Berrasmatu deigun Gaztañerre

OIER ZUBIZARRETA 'TXANBUA'

Askotan harro esan izan dut Soraluzetarra eta euskalduna naizela. Talde edo komunitate baten parte izateak duen garrantziaz eta eraginaz lagunartean jardutean, aipatzen dut zortekoa naizela hemen jaioa eta zuria naizelako. Finean, munduaren alde "egokian" sortu den gizonezkoa izateak dakartzan pribilegioez gozatzeko zoria dudalako.

Bestalde, ondorengoa irakurri eta gero, lotsatuta eta oso haserre nago. Plaentxia.eus 2019-09-11 "Bestalde,aurten beste berritasun esanguratsu bat ere izango da Gaztañerren: Udalak ez die baimenik emango kanpotik etortzen diren saltzaile ugarietara postuak

ipintzeko."Herrikoa bultzatu nahi bada, halakoak kompetentzia dira,eta gainera,asko pilatzen dira",esan zuten baserritarrek.."

Kaletarra banaiz ere, baserritar eta Gaztañerreko komunitatearen parte izateko neukan gogoaz zapuztu dit. Beste behin, gure pribilegioetaz baliatuz, kompetentziaren aitzakian, kanpokoa baztertu eta paretik kenduko dugu. Nahikoa da kanpokoa baztertzeaz. Zu ta ni bezalakoak dira. Euren delitua,

bizimodua aurrera ateratzen ahalegintzea da. Azokako salmenta gutxitzea edota jende gutxi gerturatzea ez da euren erantzukizuna, geurea baizik.

Gaztañerre folklore hutsa dela uste dut. Nortasuna galdu duen jai hutsa, baserritar eta artisauen urte osoko jarduna

kaletarrek elkarbanatzeko eta ospatzeko azoka izan beharrean. Nere ustez, egunerokoa eta Gaztañerre birplanteatu behar ditugu, baserritar eta artisauak egunero baitaude lanean, ez egun bakarrean. Batetik, erosketa ohiturak moldatu, herrikoa eta herrikerosiz eta, bestetik, Azokaren zentzua berreskuratu.

Ze asmorekin egiten dugu? Nork antolatzen du? Norentzat? Egindakoa berrikusi eta hausnartu. Uste dut beharrezkoa dela baserritar, artisau eta kaletarren arteko loturak estutzea elkar hobeto ulertzeko eta elkarbitzita osasuntsu eta aberasgarriagoa izateko.

Berrasmatu deigun Gaztañerre. Denok gozatuko dugun eguna. Denona eta denontzako ospakizuna.

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 1.000 (espazioak barne).

Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena. Gutuna helarazteko bideak: aldizkaria@pilpilean.eus

HAUSNARKETA

Gaikako bilketa

Hondakinen bilketa ez da behar den moduan gauzatzen; errefusa batzen da gaika baino gehiago, eta zerbitzuarekin ere badira buruhausteak. Hainbat erabiltzailerik galdetu diegu gaiaren inguruan.



ITZIAR AGIRRE
DENDARIA

"Akaso ez dugu beti ondo sailkatzen, eta errazera jotzen dugu. Baina zerbitzua ere ez da behar bestekoa. Ez da behar den maiztasunez batzen; orain apur bat hobetu da, edukiontzi gehiago daude, baina kartoiak kanpoan laga behar izan ditugu askotan, edukiontziak beteta zeudelako".



MARGA URIARTE
HERRITARRA

"Oso ondo pentsatzen zait birziklatu beharra eta zorrotz betetzen dut. Ezin dudanean, etxea garbitzera etortzen zaidanak eroaten dizkit poltsak. Santa Anako edukiontziak erabiltzen ditut eta poltsak kontzejupetik hartzen ditut, eta oso pozik nago".

ZIR(R)IKA

P.G. BASURDE MALTZURRAK



PUNTUA



EGOITZ UNAMUNO

Normala

Atzo goizean ogia erostera joan nintzen.

Okindegira sartu eta nire txanda heldu zenean "Egun on!" esan nion mostradorearen bestaldean zegoen emakumeari eta "Egun on! Dime!", berak. "Ogi barra bat, Tostatua" nik, eta berak "¿Algo más?" galdetu dit, "Ez. Zenbat da?" nik, "Uno veinte" berak. Berak ogia eman dit eta nik dirua eman diot, eta "Eskerrik asko" esanaz agurtu dugu elkar. Normal-normal.

Bestelako egoera bat izan du buruan Eneko Gorri euskalgile angeluarrak ondorengoa esan duenean: "Euskaldunak gara baina oraindik ez dakigu ogia euskaraz erosten". Alegia, oraindik ere euskaldunok ez dugula ikasi ogia erostea moduko gauza simpleenetan ere normaltasunez euskaraz egiten. Oraindik ere normalena da euskaldunik petoenak ere erdaraz eskatzea ogia aurrean duenak erdaraz egiten badio.

Egunotan, ikertzaileek lehenengo Euskaraldiak izan duen eraginaren berri eman dute eta haien arabera, batzaz beste, euskararen erabilerak 5 puntu egin du gora. Poztekoa da. Areago, nik sentitu dudana da elkarrizketa elebidunak gero eta normalagoak direla eta horri esker gero eta errazago egiten dudala euskaraz, okindegian eta beste edozein lekutan. Eta zeinen sentsazio ederra den sentitzea normal erdaraz egiten dizunari euskaraz egitean.

Zuk ere sentitu duzu?



MIREIA GABILONDO
TABERNARIA

"Ahalegin guztiak egiten ditugu kartoiak sartzeko, baina asteburuetan kanpoan laga behar izan ditugu askotan, edukiontziak beteta daudelako, eta inguruak ere bai. Kaskoak, berriz, bueltan ekarri behar izan ditugu tabernara, ez direlako edukiontzietan kabitzen".



XABIER IÑURRIETA
HERRITARRA

"Santa Anako gunetik nator eta paperena gainezka dago, askotan moduan; sarriago jaso beharko lituzkete. Inguruak zabortegea dirudi jendeak lagatakoekin. Baltegietakora ere joan izan naiz, eta hura ere desastre egoten da. Ibiltzen naiz lurrekoak batzen baina... jendea oso zikina da".



Aitor Amor 'Makila' lokalean dituen makil sorta ederra erakusten; lehengai modura erabiltzen ditu halakoak.

35 urteko ibildeari amaiera

Agur esan dio Aitor Amor Berraondok (Soraluze, 1948) 35 urteko artisau ibilbideari. Armagintzako grabatuak Euskal Makiletan txertatu zituen lehena eta bakarra izan da soraluzetarra, eta Irungo alberditarrekin batera, Hego Euskal Herrian Euskal Makilak lantzen jardun duen bakarra.

Testua: **Ubane Madera**. Argazkiak: **Fernan Oregi**.

railaren 28an, zapatua, itxiko du Aitor Amorrek Euskal Makilen erakusketa eta amaiera emango dio 35 urtez artisautzan egin duen ibilbideari.

Aurrerantzean, urteotan zehar pazientzia handiz landutako hainbat lan Makila izeneko Ezozibideko lokal-tailerrean izango ditu gordeta, ikusi nahi dituenari erakusteko gertu. “Norbaitek ikusi nahi baditu, etor daiteke ikustera”, egin du gonbita.

Muestra ederra dauka lokalean, baina Amorrek dozenaka makila gehiago egin ditu 1984an Euskal Makilak egiten hasi zenetik. Urte horietan guztietan landutako altxorretako asko konpartitu ditu egunotan herrian ipinitako erakusketan. Euskal Makilei buruz "sekula egin den erakusketarik osoena" izan da berau, eta bertan erakutsitako makilak bakarrak dira, eskuz egindakoak izateaz gain, Amorrek landutako estilo berritzailean eginak baitira.

Berrikuntzaz betetako jarduna

Horren adierazle, erakusketaren inaugurazioan Juan Amesti Mendizabal idazlearengandik jasotako loreak. Amestik Amorren lana nabarmen goraipatu zuen, kalitatearengatik eta bakantasunarengatik: “Aitorrek landutako makiletan ez duzue aurkituko akatsik, ez dagoelako. Aitorren izaera zorrotzaren fruitua dira. Gainera, guztiz berri zuen Euskal Makilen jarduna: makiletan aplikatu zituen armagintzarako erabiltzen ziren teknikak; heraldika ere sartu zuen makilak dekoratzeko, eta 100 urteren ondoren, baita Eibarko damaskinatua ere. Izan ere, 1912-15ean Frantziako artisauek Eibarrera bidaltzen zituzten makilak damaskinatuzera. Bada, Aitorrek badauka, Asunción Noguesek, Eibarko azken damaskinatzaileak (Armeria eskolan zegoen Eibarko Damaskinatuaaren Eskolako zuzendariak), urrearekin landutako makila bat. Horrez gain, makila ugari egin ditu gorostiarekin, antzinako eran, nahiz eta askoz ere lan handiagoa izan gorostiarekin lan egitea mizpirondoarekin alderatuta”. Euskal Makilarik gehienak mizpirira egurrarekin egin ohi dira.

Euskal Makiletan adituak gogora ekarri zuenez, Amor izan da Hegoaldean langintza horretan jardun duen bakarrenetakoa: “Euskal Makila Iparraldetik dator. Orain dela 200 urte hasi ziren berau lantzen. Hegoaldean ez zen halakorik ezagutu 1982. urtera arte, Irunen hasi ziren lantzen. Eta gero, Aitor Amor hasi zen 1984. urtean. Eta kito. Ez dago gehiago”.

Aitor Amorrek landutako pieza guztiak dira, bada, preziatuak. Altxorrek guztiak ere, baina batzuk beste batzuk baino kutunagoak ditu, Juan Amestik aipatutakoa, kasu.



Aitor Amor ondo hornitua duen lantegian lanean.

Euskal makila

Euskal makila Euskal Herrian usadioz erabili izan den makila da. (...)
Lau funtzio bete izan ditu euskaldunon artean:

- 1- Ibiltariaren lagungarria bidean, makila arruntek bezala.
- 2- Arma funtzioa. (Euskal Makila askok ezpata dute barnean)
- 3- Aginte edo ohorezko makila funtzioa. Alkateek edo elkarte edo erakundeetako buruek jaso izan dute.
- 4- Estimua edo begirunea zaion norbaiti opari gisa eskaintzea.

(Iturria: Wikipedia.)



Aitor Amor makilarik kutunena eskuetan duela. Plazentziako armarría dauka grabatuta heldulekuan, Aniceto Moreno eibartarrak egindakoa.

Prozesua

Euskal Makilak egiteko mendira joan behar da eta egurra aukeratu. Gero makila moztu eta denbora luzez lehortzen laga. Egurra hilda dagoenean, sutegian zuzendu; eta gero tindatu, beta eta kolorea bistaratu dakizkion. Bigarren urratsean, tutuak egin behar dira metalezko xaflekin, errementari teknikak baliatuta. Gero, grabaketa teknikekin apaindu, armarrí edo inzialekin. Azkenik, pieza guztiak elkartu eta makila amaitu. (Sorapedia)

Aitor Amorek badu beste makila bat benetan "kutuna" duena. Zilarrez egindako makila da, eta orain dela 20 urte Aniceto Moreno eibartarrak grabatu zuen Soraluzeko armarrí zaharra du aldean. Gorputza, berriz, gorosti egurrearekin egin da. Amorek Pil-pilean aldizkariari kontaktu dionez, 150 ordu inguru eman ditu makila hori lantzen, eta zilarretan bakarrik 400 euro inguruko balioa du. Amorek ustez, makila horixe litzateke aproposa Soraluzeko Udaletxeko agintariak eskuetan izetako izan. "Altxorra da, benetan. Ez dauka preziorik".

Udaletxea, Euskaltzaindia eta Bridgestone

Aipatutako bi makila horiez gain, beste hiru Euskal Makila ere gogoan ditu Aitor Amorek, haien jabeen dien estimuarengatik. Bata da gaur egun udaletxeko alkatetzan dagoena, Alberto Soduperen garaian egindakoa. Makila hari, makila orekatzeko ohikoa den beruna erabili beharrean, Euskadiko zilarrezko txanponak sartu zizkion puntan.

Amorek kutuna du Euskaltzaindiak erosi zion makila ere: "Jean Haritschelhar euskaltzainburu zela. Bertako idazkariak esplikatu zidan gerra denboran lekuko bat zutela Euskaltzaindian, euskaltzainburu batek besteari pasatzeko, baina hura Frantzian ezkutatu egin zutela gerrarengatik, eta orain, haren orde, nahi zutela Euskal Makila bat. Goiko txapelean Euskaltzaindiaren armarría grabatu nuen zilarreztatutako alpakana eta makila gorostiarekin egin nuen. Bestalde, beste makila bat egin nuen Bridgestone Spain (lehenago Firestone) fabrikaren nagusiarendako. Basauriko Udalak enkargatu zidan, Firestonek 100 urte bete zituela-eta. Euskal Makila hari goiko txapelean grabatu nion Bridgestone Spain-en armarría eta kanpoaldea bete nuen errubera baten kubiartaren marrazkiarekin", kontatu du.

Armagintzaren teknikak makiletan

Oro har, makilarik "normalenak" egiteko -goiko txapela adarrekarekin egindakoa dutenak-, batz besterik, 35 ordu behar izan ditu. Halakoak 700 euroan saldu izan ditu. "Materialetan 200 bat euro inbertitu behar dira, eta ordua 12-14 euro kobratu izan dut. Horrekin ezin duzu bizi", dio; eta gaineratu du ofizio hori, oro har, ez dela apreziatzen, artisautzarekin normalean gertatzen den modura. "Makila guztiak dira desberdinak, eskuz egindakoak direlako, eta nik egindakoak ez daude ez trokelez eta ezta ere punzioarekin eginda. Daude grabatuarekin eginda. Grabatuak sartzen hasi nintzen hemengo armagintzaren ukitua emateko eta bakarra izan naiz hori egiten. Horrez gain, makilak lantzeko erabili izan ditut erliebeak,

entrelazatuak, armarriak... Horretan ere bakarra izan naiz. Eta makila osoa grabatzea ere neure kontua izan da. Sekula ere ez dut produzitu makila asko. Gehienez ere, hilean makila bat. Kapritxoz egin izan ditut, ordu mordo sartuta. Nirea ez da izan enpresa bat", zehatu du.

35 urtez makilagintzan

Txiripaz hasi zen Aitor Amor Euskal Makilak egiten, koinatuak bota zion erronka onartu eta gero (xehetasunak beherago).

Ordurako aritua zen armagintzan eta barruan zituen langintza horretarako jakintza eta grina.

Egurra lantzen, berriz, bastoiak eginez hasi zen. 1981a zen. Eta 1984an ikusi zuen lehen aldiz Euskal Makila bat, koinatuak erakutsita, Iparraldetik ekarria zuena. Hark erronka bota zion, ezetz halako beste makila bat egin eta Aitor Amorek heldu egin zion erronkari. Garai hartan zalantza ugari bazituen ere: "Nondik hasi behar naiz? Ez dakit narrua lantzen. Eta soldatzen ere ez. Ikasi beharreko guztia gero ikasi nuen. Eta mendian asko ibilitakoa naizenez, banekien nora joan behar nuen egurra hartzera. Ikusi nuen Hegoaldean Euskal Makilak ez zirela ezagunak; hemen bastoiak ezagutzen genituen eta bastoiak egitetik abiatu nintzen Euskal Makilak lantzen", esplikatu du.

Euskal Makilak egiten hasi zenez geroztik, 35 urte igaro dira eta tarte horretan makina bat azoka bisitatu ditu bere makilekin eta sariak ere eskuratu ditu: Kalagorri (Errioxa), Cascanten (Nafarroa), Belgikan, Lovainan eta Basaurin. Lana dotore eginda dotoretu du Aitor Amorek Euskal Makilagintzaren ofizioa.



Bisitariak Aitor Amoren erakusketan, artisauek egindako makilarik preziatuenei begira.

TXIRIPAZ HASI ZEN AITOR AMOR EUSKAL MAKILAK EGITEN, KOINATUAK BOTATAKO ERRONKA BATEGATIK

Armagintzatik makilagintzara

Bere bizitza profesionalen hasieratik interesatu izan zaizkio eskulanak; lanik finenak. 1984 urtean hasi zen makilak egiten, eskopetak laga eta SAPAra etorri zen garaian.

Eskopetagintzan eskuratu zuen artisautzako jakintza -esaterako, grabatugintza-, eta baita afizioa ere. Ostera, aurrerago ikasi zituen egurra eta narrua lantzeko teknikak.

Bere kontura

Lehenengo makilak mendirako makilak izan ziren. Beranduago, bere koinatuak Euskal Makila bat ekarri zuen Iparraldetik konde batena omen zena eta erronka bota zion; ea egingo zuen haren moduko bat. Heldu egin zion erronkari eta bere kontura ikasi edo asmatu behar izan zituen hainbat teknika, ez baitzuen maisurik izan.

Azkenengo armagina

Aitor Amor armagintzari eta metalaren eskuzko lanketa finari loturik dagoen azkenengoetako plazentziarra da. Aitorrenak, herrian azken 500 urtetan pilatutako armagintzaren industri ondare teknologiko eta kulturalaren azkenengo aztarnak dira, etorkizunean are eta balio handiagoa hartuko dutenak, bilatzen zailak izango direlako. (Iturria: Sorapedia)



Soraluze Futbol Taldearen 2019-2020 denboraldiko jokalariai, zapatuko aurkezpen ekitaldian.

Kirol aukerak ugaritzen

Azken boladan, kirola loraldian dago herrian. Sorak aurkeztu ditu bere jokalariai, eskola kirolean 75 ume apuntatu dira eta aurten errugbian jarduteko aukera ere izango da.

Soraluze Futbol Taldeak zapatuan aurkeztu zituen 2019-2020 denboraldian bere izenan jokatu duten talde eta jokalariai. Klubak, guztira, 120 jokalaria inguru izango ditu, 8-40 urte bitartekoak, zazpi taldetan banatuta. Benjaminen bi talde, alebinenak beste bi eta infantil, kadete eta gorengo mailan bana. Alebinekin eta benjaminekin ibiliko dira Julio Rascon, Victor Perez, Aitor Barrutia, Xabi Gil, Beñat Goneaga eta Jon Urdangarin.

"Gutxigatik eta azken momentuan" geratu dira, gazte taldea osatu barik, bigarren urtez. Ostera, osasuntsu estreinatu dute futbol eskola, 20 ume baino gehiagorekin. Horiek

Mikel Calvok koordinatuta jardungo dute. Eta osasuntsu dago infantil maila ere. Haien gidari izango dira Julen Gomez eta Javier Hernandez. Aldiz, "justu" dabilza kadete mailan, Jokin Arrillagaren gidaritzapean.

Bestalde, Gorengo mailako taldea egonkortuta ikusten du Alberto Goenaga presidentek eta itxaropentxu agertu da aurtengo denboraldiari begira: "Oso-oso gustura gaude; taldean segitzen dute iazko jokalariai gehienek. Sartu dira sei berri, hiru kanpotarrak, Ermua eta Elgoibarkoak, baina aurretik ere klubean jokatzeko ibilitakoak Eginda dago ekipoa eta denok espero dugu denboraldi polita egitea".

Errugbia, eskola kirola...

Futbolaz aparte, aste honetan aurkeztu dute Eskola Kirola. Bertan 75 bat neska-mutikok eman dute izena eta urriaren 15ean hasiko dute "denboraldia". Eskubaloia, errugbia, judoa, eskalada, pilota... probatu ahalko dituzte.

Eta aurten, ohiko kirol aukerez gain, bada beste bat berria: errugbia. Guraso talde batek eta errugbian aritutako hainbat herritarrek bultzatuta, irailaren hasieratik, eguaztenero hitzordua egiten dihardute errugbiarekin lotutako jolasak eta jarduerak praktikatzeko, nahi duenak eta nahieran. 18:00etan elkartzen dira, Plaza Zaharrean. "Tarte atsegina pasatzea da helburua, ez besterik, eta horretarako ez dago adin mugarik". Orain arte 20 lagun pasa elkartu dira. (Whatsappak: 651 38 98 28 ala 676 89 04 75).

**ERRUGBIA
PRAKTIKATZEKO
EGUAZTENERO
ELKARTZEN DIRA,
18:00ETAN PLAZAN**

Hezkuntza eta laguntza zerbitzua Haurreskolan



Haurreskolako hezitzaileak umekin.

Urtean 208 eguneko eta egunean 9,5 orduko zerbitzua eskaintzen du Haurreskolak, 07:30etik 17:00ak arte, beharren arabera, malgu. Zerbitzua doan da 18.000 eurotik beherako errentadun familientzat; eta bi ume edo gehiago aldi berean matrikulatuta dituztenek, bigarrenetik aurrera ez dute ordaintzen.

21 umeri arreta emateko gaitasuna dauka eta hiru hezitzaile ditu: Maite, Lorea eta Aitziber. Hirurek dute urte luzetako esperientzia, eta ondo asko ezagutzen dute euren lana.

"Arreta pertsonalizatua"

Maite Erdabidek azpimarratu du "zortea" dutela umeei "arreta pertsonalizatua" eskaini diezaioketelako: "Lokartzeko, jaten emateko, jolaserako... ume bakoitzari beharren arabera atentzioa ematen diogu".

Lorea Zurutuzak, berriz, gaineratu du mugimendu askea dutela oinarrietako bat. Umearen

autonomiari begira. "Adibidez, bakarrik zutituko da berak zutitzen ikasten duenean; halakoek umearen autoestimua lantzen laguntzen dute".

Eta hori guztia osatzen dute "jolasean eta ukipenean" oinarritutako esperientziekin, estimulazioa pizteko, Aitziber Olaizolak gehitu duenez.

Matrikulazioa zabalik

Urriaren 1etik 9ra zabalduko dute matrikulazioa Haurreskolan, abendua eta otsaila bitartean hasteko. 2018-2019an jaiotako umeendako zerbitzua da. Eta dauden lekuen %75a beteta egon arte matrikulazioa etengabe dago irekita.

Esperientzia errepikatu dute



Aitziber Mayo. FERNAN OREGI

Hiru ume izan ditu Haurreskolan:

"Nik gomendatu egiten dut. Beste ume batzuekin egoteak, nirei lagundu egin die afektibitatea handitzen. Asko askatu dira. Gainera oso ondo tratatu dituzte. Eurak oso gustura egon dira eta gurasooi askatasun eta independentzia apur bat izaten lagundu digu, lanerako nahiz guretzat".



Ane Ugalde. AXLOR ELORTZA

Bigarren umea du han:

"Lana eta umeen zaintza kontziliatu ahal izan ditut; lasai gainera, badakidalako umeak ondo atendiduta eta baldintza onetan daudela. Txikia da Haurreskola eta horri esker umeei dedikazio zuzen eta oso pertsonalizatua dute. Ordutegia malgu erabil daiteke eta hezkuntza irizpideak konpartitzen ditugu".

"Euskaltzaleen komunitatea erdigunera ekarri dugu"

ELENA LAKA ETA KIKE AMONARRIZ TOPAGUNEKO LEHENDAKARIA ETA HAUTAGAIA

MONIKA BELASTEGI TTAP

ARGAZKIAK: TTAP

Bergarako Errekalde jauregian batu ditu TTAP aldizkariak Elena Laka eta Kike Amonarriz. Elena Laka 2014ko apirila ezkerro Euskal Herriko Euskaltzaleen Topaguneko lehendakari izan da eta kargua utzi egingo du.

Lehendakaritzarako hautagai moduan aurkeztuko da Kike Amonarriz, gaur, ostirala, Andoainen egingo den batzar nagusian. Hark hartuko du Lakaren testigua.

Biak ere beteranoak Topagunean, eta zure kasuan, Elena, 2014a ezkerro lehendakaria. Oraintxe lagako duzu; zergatik?

Elena Laka: Bost urte badira zerbait; kar, kar, kar. Lagatzeko momentu bat badela uste dut. Bost urtean ibili naiz, ahal izan dudan neurrian, buru-belarri sartuta eta inplikatur, eta orain, badator beste lehendakari bat. Gauza berriak egingo ditu, aro berri bat dator, eta jauzi bat aurrera egingo duena. Nik uste dut nire lana egin dudala, eta gizarte mugimenduetan aldaketa hauek gertatzea oso

onuragarria dela uste dut. Pertsonen osatutako erakunde bat da, eta nire ustez ezin da egonkortu pertsona bat, ez delako ona. Nire lana egin dut, oso-oso pozik egin dut, eta Euskaltzaleen Topaguneaz berba onak besterik ez ditut esateko, eta orain, Kikeri pasatzen diot lekukoa. Eta, gainera, hau ez da nire lana. Hemen boluntario lan bat egiten dut, oso gustura, uste dut aktibista moduan edozein pertsonari eskatu eta eman beharreko lan bat dela, eta, hala ere, jaso egiten da gehiago eman baino. Orain, albotik laguntzen jarraituko dut. Orain, Kike Amonarrizen eta bere zuzendaritza batzordearen esku geldituko da dena.

Kike Amonarriz: Elenak bost urte esan ditu, baina ze bost urte! Emankorrak, intentsoak...

**KIKE AMONARRIZEN
ETA BERE
ZUZENDARITZAREN
ESKU GELDITUKO DA
DENA**

Esku onetan uzten duzu lekukoa, eta zuk nola hartzen duzu, Kike?
K.A.: Ba, ilusio handiz! Elenak esan duen bezala, bost urte hauetan berak lideratu duen mugimendu guztia ikaragarria izan da. Jauzi ikaragarria eman dela uste dut, ilusio handiz bizi izan dugun jauzi bat, gainera. Aurreko lehendakari guztiak epe bat bete dutela ikusi dut, eta beti gorantzako mugimenduan. Fernando Muniozgurenekin mugimenduaren sorrera etorri zen; gero, Joxe Mari Muxika etorri zen, eta kooperatibismotik zekarren kudeaketarako ikuspegia txertatu zuen, eta herri komunikabideen esparruari ere eman zion kohesioa eta indarra. Karmen Irizarren garaian, lehenengo kongresua egin zen, eta hor Oinarriparrak jarri ziren eta jauzi bat emateko gogoia piztu zen. Gainera, neurri batean, Karmen Irizarri esker nago gaur hemen. Gogoratzen naiz bera eta Jasone Mendizabal etorri zitzaizkidaldea sortu nahi zutelako Topalabea taldea. Ni orduan telebistan nenbilen, eta



Elena Laka eta Kike Amonarriz. ATAPP ALDIZKARIA.

berriro txertatu nintzen mugimendura. Gero, Mikel Irizar etorri zen eta zoru komunarekin eta ideia berriekin salto handirako lurra ondu zuela uste dut, eta salto handi hori Elenarekin heldu da. Batetik, mugimendua zabaldu egin da Euskaraldiak ekarri duen guztiarekin. Eta ez bakarrik euskal komunitateak hartu duen protagonismoa, baizik eta horrek aurretik zuen sukalde-lan guztia, elkarlanaren ideia guztia, Euskal Herri osoan egin ahal izatea. Nire ustez, Elenarekin diskurto aldaketa bat ere etorri da. Euskararen inguruan hitz egiteko modu berri bat, eta Elenak euskalgintzaren bilakaera hori guztiori irudikatu du. Orain, nik ilusioarekin hartuko dut, baina baita erantzukizunarekin, oso puntu onean, gainera, sekulako

EUSKARALDIAK EUSKALGINTZAREN ERAGIN AHALMENA BIDERKATU DU ETA ELKARLANA SAKONDU

lana egin delako urte hauetan guztietan. Lan horri beste urrats bat, beste salto bat eman behar zaio, eta mugimendua zabaltzearen bidetik eta indartzearen bidetik ikusten dut nik. Euskaraldiak euskalgintzaren eragin ahalmena biderkatu du, eta elkarlanaren bidea sakondu egin behar da, eta horri edukiak, eduki sakonak, eman behar zaizkio. Erronka, beraz, orain arte lortutako zaintzea izango da, eta horri etekina atera behar diogu.

E.L.: Zu izango zara lehendakaria eta lideratuko duzu taldea, baina sekulako lantaldea dago Euskaltzaleen topagunean, hori esan beharra dago. Zuzendaritza batzordetik hasita, lantaldeak, euskara elkarteetako boluntario eta langileak, hainbat herritan sortu diren Euskaraldiko batzordeak... Jendetza ikaragarria dago momentu honetan, Euskal Herri osoan. Hau gizarte mugimendu bat da, eta jende asko mugitzen da norabide berean.

Euskaraldia aipatu duzu, Kike, eta izan duen garrantzia. Uste duzue

Euskaraldiak euskalgintzari eraldaketa ekarri diola?

E.L.: Euskaraldia prozesu luze baten azkeneko begia izan da, nahiz eta jarraipena izango duen gerora. Ez da horrelako batean sortu. Euskaltzaleen Topagunean lan handia egin da aurretik. Lehenengo, mugimenduaren barruan; eta gero, euskalgintzako gainerako eragileekin, erakundeekin... Egin den lana, sortu den giroa... horren ondorio izan da Euskaraldia. Duela hamar urte Euskaraldia ezin izango zen egin, ia seguru, beste egoera batean geundelako. Eta egoera aldaketa horri denok egin diogula mesede uste dut: bai erakundeek, bai gizarte eragileek, eta baita euskaltzaleen mugimenduak. Bakoitzak bere aldetik jarri du, eta 2017a uste dut izan zela giro aldaketarako eten bat, konfiantzan oinarritutakoa. Gaur egungo egoera zubiena da, sareak egitearena. Eta elkarlanaren bitartez Euskal Herria euskalduntzea.

Elkarrizketa osoa Plaentxia. eus-en.



Iratxe Retolaza literatur kritikaria. HIK HASI

Irakurketa feminista ikastaroa

Iratxe Retolaza eta Ainhoa Aldazabal literatur kritikariek gidatuko dute eta saioak zubiko zentro soziokulturalean eskainiko dituzte.

Literatura eta ikuspegi feminista uztartuz, urrian hasi eta ekainera bitartean, Irakurketa feminista izeneko ikastaroa egingo da zubiko zentro soziokulturalean, emakumezko zein

gizonezkoendako. Iratxe Retolaza eta Ainhoa Aldazabal literatur kritikariek gidatuko dute eta hauek azaldu dutenez, "begirada feministaren eta begirada literarioaren arteko bidegurutzean sorturiko

ezagutza-bideez eta esperientzia-bideez jabetzea" izango da ikastaroaren helburua. "Bi begirada horiek elkartuko dira ikastaro honetan, eta begirada feminista literarioa garatzeko norabideetan jarriko dugu ahalegina. Hortaz, literaturak berezko dituen ezagutzarako bideak eta esperientziarako bideak begirada feminista mamitzeko eta garatzeko baliatuko dira".

Hilero, martitzenetan

Irakurle-taldea hilean behin batuko da zubiko zentroan, martitzenez, arratsaldeko 19:00etan, eta saio bakoitzean (8 guztira) euskal literatura garaikideko sorkuntza-lan bat izango dute hizpide (lanak liburutegian eskuratu ahalko dira) eta baliteke tarteka bestelako aktibitateen batzuk ere antolatzea. Ikastaroa, ofizialki, urriaren 22an aurkeztuko dute, baina dagoeneko eman daiteke izena errabal@hotsak.com emailera idatzita. Matrikulatzeko 20 euro ordaindu behar dira.

Ikastaroa Soraluezko Errabal kultur elkarteak antolatuta du.

Mami Lebrun eta Jon beldurgabea antzezlanak urrian

Urrian, Udazkeneko Antzerki Zikloaren barruan, bi antzezlan eskainiko dira antzokian. Lehen antzezlanak, Mami Lebrun, urriaren 18an eskainiko dute, barikuan, gaueko 22:15ean. Antzezlanak bi loibak amonaren etxeko ganbaran aurkitutako eguneroko batzuetan oinarritzen da, bertan amonak gaztetan Pariseko Cabaret

batean bizitakoak kontatzen ditu. Aurtengo Donostia Saria jaso du obrak.

Bigarren antzezlanak, Jon bedurgabea, umeendako antzezlanak da eta oinarritua dago Grimm anaien ipuin klasiko batean. Obra hau urriaren 27an eskainiko dute, domekan, arratsaldeko 17:00etan.



Ane Pikaza eta Kepa Errasti aktoreak.



IZXGUIRRE
Igeltzeritza

Erakin berriak • Kalitateko emaitza
Errefermak • Era guztietako igeltzeritza

50 urteko esperientzia - 610 638 913 - 649 067 209

Jatorria plazarrak, bertatik bertara



Batzoki

egoneko menua
aniztasunak
karta eta menuak

opartariekok eta
herbergienak
enikargu berriak

Basilla eta
lagun arriko
bertarik

Errotoak: 943 75 20 35

Hortz klinika Erreal 1
Tel.: 943 75 16 13

Javier Alonso
Mediku Estomatologo
K.Z. 48.000.591

Katia Gustin
Odontologo
K.Z. 48.001.541

27 urteko esperientzia
odontologia, protesiak,
odontopediatria, ortodontia,
implanteak, estetika...

Zerbitzu radiologiko onak (SD):
ekianerria, orto eta tele.



Kontulan 

aholkularitza
ABOKATUAK

Errenta, altopenak • Administrazioa lanak
Tratamendu burokratiko • Lan-arloko aholkularitza
Eguzki konduzio/instalazioak • Kontabilitatea

Santa Ana 13 - 1. est. 20190 Sorluze
Tel. 943 75 17 82 / Fax 943 75 01 82

sutarako egurra salgai
pago-egurra, haritz-egurra...

OSUMA
basolanak

img. 625 71 34 08



JUAN MARI
ARRANDEGIA

ARRANDEGIA
Elizate eramateko zerbitzua
Eskuzko bertara dago

MEZKUTU PLAZA - 943 75 24 48



Soraluzeko
Kooperatiba Elkarteak
1900ek eskatzen

Arrandegia, janaria,
errapak, etsako tresnak,
etsara eramateko zerbitzua

Kalebarren 4
Tel.: 943 75 13 45

Asteheneretik ostiralera:
08:30 - 12:30 eta 17:00 - 19:45
Larunbatak: 09:30 - 13:00



ELIZPE
HORTZ KLINIKA

Zure gatzeko hortz klinika,
puntu puntako teknologijekin lan
egiten dugu. Cad Cam sistema
bertaratu erabiltzen dugu.

Elizburu, 3 behea
SORALUZE
Tel.: 943 75 25 67
e-mail: elizpe1@gmail.com

Orduetgia:
Asteleheneretik ostiralera:
10:00 - 13:00 eta 16:00 - 20:00



TXURRUKA
JATETXEA

Sukalde
tradizionala
Eguneko menua
Asteburuetako
menu berezia
Karta
www.txurruka.com
Tel.: 943 75 15 81



GARBIKETAK

Portalak • Bulegoak
Lokalak • Enpresak
649 381 400 (Aitziber)



MENDIZABAL
okindegia

Ogia • Prentsa • Gosariak

Asteleheneretik
ostiralera:
08:00 - 13:00
17:00 - 20:00
Larunbatak eta
igandeak
08:30 - 13:15

Kalebarren 10
Tel.: 943 75 13 99





FOGASLER
ITURGINTZA

943 75 16 46 (Soraluze) - 943 71 82 49 (Oñati)
fogasleriturgintza@gmail.com

Txoko

Eguneko menua,
plater konbinatuak,
herbergienak,
opartariekok,
nabak,
pizak,
gosiak...

Enkarguak agian dira
Tel. 943 75 17 89



Euskalzaletasunaren alde:



Motxila irribarrez beteta

NEREAK NDANK NDANK ELKARTEAREKIN SENEGALERA EGIN DUEN BIDAIAREN KRONIKA

NEREA IÑURRIETA

ARGAZKIAK: NDANK-NDANK

Uda honetan oporrak modu paregabean bizitzeko aukera izan dut Ndank Ndank elkarte bergararren eskutik: Debagoieneko talde horrekin Senegalen egin ditut bi aste, bertan hezkuntza eta osasunari lotutako hainbat programa garatzen.

Ndank-Ndank elkarte 2011an sortu zen. Euskaldunetz eta senegaldarrez osatua dago eta kulturartekotasuna lantzeko ekintzak eta garapenerako lankidetzak proiektuak burutzen ditu Senegalen.

Aurten Elkarbizitza eta Elkartasun Programa egitea erabaki zuten, eta Bergaratik 31 lagun joan ginen Dionewar irlara, bertakoak direlako Bergaran bizi diren senegaldar asko.

Programak hainbat helburu ditu; besteak beste, euskaldunen eta senegaldarren arteko zubiak indartzea, eta sentsibilizazioa lantzea, elkarteak etorkizunean egingo dituen ekintzetan zein proiektuetan inplikazioa handitzeko.

Egonaldia Senegalen

Sentsibilizazioa hiru fasetan landu dugu: lehenengoan, Senegalgo errealitateari buruzko formakuntza saioak jasotzen, hango



Euskaldunak eta senegaldarrak, bertako jantzita.

bizimodura errazago egokitu ahal izateko, eta horrekin batera dirua lortzeko ekintzak egin genituen, Senegalgo proiektuetarako finantzazioa lortzeko. Egia esan, fase oso interesgarria izan zen, taldekideok aukera izan genuelako elkar ezagutzeko.

Bigarren fasea, berriz, Senegalgo bertako egonaldia izan da. Han aukera izan dugu zelako bizimodua duten ezagutzeko, herritarrekin batera bizi izan gara eta hainbat ekintzak egin ditugu.

HAUR HEZKUNTZARAKO ERAIKINAREN OBRAK HASI DITUGU, IKUSMEN AZTERKETAK EGIN ETA AISIALDIA LANDU DUGU

Adibidez, haur hezkuntza eskaintzeko eraikina eraikitzen hasi ginen, Bergarako Mendekoste jaietan antolatutako tonbolako diru laguntzari esker. Lanek sekulako erritmoa hartu dute. Gainera, aisialdi ekintzak garatu genituen haurrekin: jolasak, eskulanak, bideo proiektzioak...

Bestalde, Elgoibarko Uzuri optikak emandako makinari esker, herritarrei ikusmen azterketak egin genizkien, eta horrez gain, eskualdean batu ditugun betaurrekoak banatu ditugu.

Kultura konpartitu

Kulturartekotasuna bultzatzeko ekintzak ere egin ditugu: musika fusioak (trikitia, panderoa, txalaparta, bertako jemberekin eta kalabazekin), euskal eta afrikar dantzak,



Nerea Iñurrieta lankideekin.

hausnarketa sorrarazteko zine foruma eta estropadak ere bai (20 urteren ondoren herrian berreskuratu den tradizioa da).

Motxila beteta bueltan

Profil oso desberdinetako pertsonak joan gara Senegalera: erizainak, irakasleak, argazkilariak, ingeniariak... eta esperientzia guztiz positiboa eta aberasgarria izan da. Herriak esku zabalik hartu gintuen hasieratik, eta uneoro errespetuan oinarritutako elkarbizitza eta elkarlana izan dugu.

Motxila irribarrez eta luzaro gogoratuko ditugun bizipenez beteta ekarri dugu bueltan. Bertan ikusitakoek eta ikasitakoek hemen daukagun bizitza eredua zalantzan jartzera eta beste balore batzuk indartzera animatu gaituzte.



Haur Hezkuntza eskaintzeko eraikina.

Orain, hirugarren fasean murgilduta gaude: ebaluazioa eta difusioa. Gainera, aurrerago lantzeko proiektu asko ditugu buruan eta horientzako finantziarioa lortzeko ekintzak egiten jarraituko dugu.

**PROIEKTU ASKO
DITUGU BURUAN ETA
FINANTZAZIOA
LORTZEKO EKINTZAK
EGINGO DITUGU**

ZORION AGURRAK



Julen Aristi Sanchez
Irailaren 5ean,
urtebete. Zorionak!
Urtetxo bat ia! Patxo
haundi bat etxeko
guztien partez.



Gorka Bollar Cruz eta Naia Bollar Oregi
Abuztuaren 13an 34
urte eta Irailaren
5ean 4 urte. Zorionak
poxpolin! Etxekuen
partez.



Monti, Nahia eta Ron
Uztailaren 28an,
abuztuaren 13an eta
19an. Zorionak!
Jarraitu irribarre
polit horiekin.
Etxekoak.



Maria Irusta Mugartegi
Irailaren 3an 91 urte.
Urteak bete eta
berehala juan zara, hala
be zorionak amama!
Zaindu zaozen lekutik.
Bihotzez eskerrik asko!
Maixbe zaitxut!



Joel eta Emma Donoso
Iraila 14an eta 26an,
13 eta 7 urte.
Zorionak eta muxu
handi bat! Etxekuen
partez.



Eire eta Oinatz Beretxinaga Heriz
Irailaren 23an eta
irailaren 4an 4 eta 8
urte. Zorionak,
bikote! Segi beti
bezain alai. Patxo
handi bana.
Etxekoen partez.



Iñaki Larrañaga
Irailaren 7an, 52
urte. Zorionak!
Etxekoen partez.




Mikele Oregi
Abuztuaren 1ean.
Zorionak!
Etxekoen partez!



Aitor Madrid
Irailaren 15ean 47
urte. Zorionak,
Aitormenta!
Kuadrilia



Mikel Santiago
Irailaren 30ean 46
urte. Zorion
bedeinkatuak!
Kuadrilia.



Ander Pastoriza
Irailaren 21ean 15
urte. Zorionak
gizontxo! Pileko
lagunen partez.



Ainara Azkoitia
Urriaren 9an, 46
urte. Zorionak eta
ondo-ondo pasa!
Kuadrilia.



Maia Unamuno Uribeberria
Irailaren 17an, 9 urte.
Zorionak artista! Segi
rapeatzen eta dantzan!
Jaiki Doktorea eta
Mister Jai.



Irea, Jokin eta Unai
8 urte uztailaren
25an, 40 urte
abuztuaren 15ean
eta 3 urtetxo irailaren
3an. Zorionak
etxekuen partez!.



Eñaut eta Igor Cerrejeon
Irailaren 11n 11 urte
eta urriaren 1ean
45. Zorionak eta
muxuak zuei! Danon
partez.



Irene Agirre
Irailaren 6an, 10
urte. Zorionak,
politxori! Patxo
handi bat etxeko
guztien partez.



Peru
Irailaren 27an 3
urte. Zorionak
txapeldun!
Ondo-ondo pasatuko
dogu. Familian
partetik!



Sara eta Maren
Abuztuaren 21an, 2
urte eta irailaren
25an, 6 urte.
Zorionak! Muxu
handi bat etxekoen
partez.



Mikel Leunda
Irailaren 29an, 50
urte! Zorionak,
lagunen partetik.



Aiur Oñederra Espilla
Abuztuaren 17an
urtebete. Zorionak!



Margarita eta Isidora
Urriaren 10ean eta
azaroaren 7an 91
eta 93 urte.
Zorionak! Maite
zaituztegu!
Etxekoak.

HILDAKO ETA JAIOTAKOAK

Hildakoak

Manuel Mateo Peña
Maria Asuncion Uribealzo Goikoetxea
Maria Aranzazu Etxeberria Agirre
Joaquin Carmona Merino
Mertxe Balzola Garay
Jose Moreno Cruz
Rosa Maria Aizpiri Alberdi
Maria Galarraga Ondarra

Jaiotakoak

Isaraa Jamai Marsoure
Haizea Prol Apellaniz
Eki Bollar Oregi
Ihuri Unamuno Ginea
Markel Atxotegi Arruabarrena

ESKELAK

OROITZA

Mertxe Balzola Garai



Donostian hil zen abuztuaren 1ean, 76 urte zituela.

Zure etxean beti izan dugu
atea zabal zabalik,
eskerrik asko Mertxe bihotzez
emandako denagatik!

Santa Eskeko taldea.

ESKER ONA

Maria Irusta Mugartegi



2019ko irailaren 10ean hil zen, 91 urte zituela.

Haren ondoan bizi izan gara
erregina bat bezela
ezin zitekeen hobeto bete
amona on baten papela

Etxe barruko lamia eta
inguruetako dama
bihar goizean hurbil zaitzteze
goxo-goxo beragana

Eta esaiozue eskerrik asko
guztiagatik asko maite
zaitugu amama

Eskerrik asko saminean lagun izan zareten guztioi.

JAIOBERRIAK




Nikole Heras Romero

Irailaren 5ean jaio zen. Argazkiak
amama Carmenekin.



Eki Bollar Oregi

Abuztuaren 13an jaio zen.



Markel Atxotegi Arruabarrena

Irailaren 17an jaio zen.



Haizea Prol Apellaniz

Abuztuaren 15ean jaio zen.

IRAGARKI LABURRAK

Komertziala behar du MGS aseguru etxeak

Baloratuko da: hizkuntzak
ezagutzea, gidabaimena izatea,
gaitasuna izatea
harremanetarako eta
arduratsua izatea. Aurkeztu
hautagaitza 943751457 edo
646522659 telefonora deituta
edo Santa Ana kaleko bulegora
joanda (Loli).

Land Rover Defender

Land Rover Defenderra erosiko
nuke, berdin dio ze egoeratan
dagoen: ITV gabe, matxuratua,
kolpearekin... jarri
harremanetan 623-179-537.

Zaintzailea behar da

Zaintzailea behar dugu 5 urteko
umea zaintzeko. 2-3 ordu
astelehenetik ostiralera.
Kotxearekin. Galderaren bat
edo edozer gauza: 699940311.
Asier.



**Zu hemen zaude,
AEK ere bai**

100 euskaltegi baino
gehiago Euskal Herri osoan

EUSKARA-IKASTAROAK

Soraluzeko AEK euskaltegia

Euskalduntze orokorra
(aurrez aurrekoa edo autoikaskuntza).

Xede bereziko ikastaroak: AISA, B1, B2, C1 eta C2
(Online) mailak.

Hizkuntza eskakizunak: IVAP, IRALE, Osakidetza.

Informazioa-matrikula,
euskaltegian bertan: astearte, asteazken eta osteguna,
18:00etatik 20:00etara.

Soraluze. Baltegieta kalea, 2. **943 75 14 34**

DIRULAGUNTZAK